



PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

KASPERSKY ANTIBIRUSAREN LIZENTZIAK HORNITZEA ETA MANTENTZEA

1.- Kontratuaren xedea.

Kaspersky antibirusaren lizentzien hornidura eta mantentze-lanak kontratatzea.

2.- Proiektuaren irismena.

Agiri honen xedea zera da: ezartzea zer preskripzio tekniko bete behar dituzten Kaspersky antibirusa erabiltzeko lizentzien hornidurak eta mantentze-lanek 2025., 2026., 2027. eta 2028. urteetan.

Gaur egun, Kaspersky antibirusaren lizentzia kopuru hau dago, KSC onpremise zerbitzari batetik administratuta:

Produktua	Lizentzia kopurua
Kaspersky Endpoint Security for Business - Select European Edition.	600
Kaspersky Security for Mail Server European Edition	265

Lizentziak berritu nahi dira produktua **Kaspersky Next EDR Optimun** izeneko bertsio hobe batera migratuz, eta horretarako, **380 lizentzia** eskuratuko dira gaur egun erabilitako sistemetan ezartzeko.

Azpiegitura ingurune hibridoan hornituko da, on-premise zerbitzari batetik Kaspersky Security Center delakoaren bidez (Interneteko sarbiderik gabeko ekipoak babesteko), eta hodeiko kontsolaren bidez; biak ala biak konektatuta.

BBUPek egun Kasperskyn duen kontuaren barruan hornituko dira lizentziak. Oraingo lizentzien mantentze-zerbitzua 2025eko martxoaren 27an bukatuko da.

Zerbitzuak barne hartuko ditu kontratuaren indarraldian aurretik zehaztutako lizentzia guztien mantentze-lanak.

Bertsioak eta kudeaketa-kontsolak aldatuko direnez, **migratzeko prozesua** egin beharko da, bai kontsoletan, bai babestu beharreko ekipoetan. Prozesuak honako hauek hartuko ditu barne:

- 1) KSC zerbitzarien upgrade egokitzea + O365 konfigurazioa.
- 2) Hasierako piloturako politikak, instalazio-paketeak eta atazak prestatzea.
- 3) Pilotua ezarri eta ikuskatzea, doitzeta, berrikustea eta funtzionamendu-probak egitea.
- 4) Globalki hedatzea eta ezarri ondoko berrikuspen eta doikuntzak egitea.

Kaspersky enpresako langileek egingo dute migrazioa, eta, behar izanez gero, kontratuaren adjudikazioduneko nahiz BBUPeko langileek lagunduko diete.

Ekipoak kontsola berrietara migratu bitartean (2 hilabete aurreikusten dira), Kaspersky Endpoint Security for Business – Select-en aldi baterako lizentziak eduki behar dira, ekipoak babesik gabe geldi ez daitezen.



3.- Prebentziozko eta erreakziozko mantentze-lanen ezaugarri teknikoak.

Eskaintzak barne hartuko du, halaber, plataformaren prebentziozko eta erreakziozko mantentze-lanak egitea.

Prebentziozko mantentze-lanei dagokienez, lanaldi erdiko (4 ordu) **hileko berrikustea** eskainiko da, honako zeregin hauek egiteko:

- Plataforma eguneratzea, beharrezkoa bada (bertsio berriak, adabakiak, funtzionalitate berriak, etab.). Horren barruan sartzen da Kaspersky Security Center zerbitzari zentrala, baita haren moduluak ere, eguneratu eta konfiguratzea, zerbitzaritik bezeroen bertsio berriak eskuratzea, eta parametrizatzea eta hedatzeko atazak sortzea. Partzuergoa arduratuko da bezero-ekipoetan ezartzeaz.
- Plataforma berrikustea izan litezkeen arazoak, gorabeherak, behar bezala babestutako ekipoak eta bertsio zaharkituak eta abar antzemateko.
- Plataformaren behar bezalako jarduerarako behar diren ziurtagiriak egiaztatzea eta eguneratzea.
- Plataforma eta jarraibideak aldatzea Partzuergoaren eskaerei jarraikiz.
- Plataformaren jardueraren gaineko zalantzak argitzea.
- Plataformaren jarduera onenerako gomendioak egitea.

Hileko berrikuspenaren ostean, berrikuspenean eginikoari buruzko txostena egingo da, eta plataforman eginiko aldaketak nahiz haren jarduera hobetzeko gomendioak zehaztuko dira.

Hilean behingo mantentze-lan hori urrunetik egingo da ahal den guztietan.

Bestalde, **hiru hilean behingo jarraipen-bilera** egingo da, izan litezkeen arazoak eta produktuaren bilakaera ikusteko.

Erreakzioko mantentze-lanak urteko 100 orduko poltsa izango du; ordu horiek erabili eta fakturatuko dira BBUPen eskaerei erantzunez.

Produktuarekin sortzen diren presako gorabeherak aztertu eta kudeatzera bideratuko da ordu-poltsa, betiere, presa eta konplexutasunagatik, hilean behingo berrikuspenetan konpondu ezin badira. Zerbitzuak barne hartuko du:

- Adjudikaziodunaren sail teknikoak gorabehera aztertzea, konpontzeko proposamena egitea eta irtenbidea gauzatzea.
- Aurreko lerrokadan adierazitako jarduketan bidez konpontzerik ez badago, gorabehera irekitzea eta fabrikatzailearekin haren jarraipena egitea.

Mantentze-lana urrunetik egingo da ahal den guztietan, baina, BBUPen instalazioetan laguntza teknikoarekin lotutako langileak berehala bertaratzea eskatzen duten zereginen kasuan, enpresa adjudikaziodunak bermatu beharko du langile adituak gehienez 2 orduko epean egongo direla prest, BBUPek gorabeheraren berri ematen duenetik aurrera.



4.- Proiektuaren beste alderdi tekniko batzuk.

BBUPek hornitutako ekipamenduaren eta lizentzien jabe gisa agertu behar du, eta ekipamendu horren fabrikatzailearen datu-baseetan jasota geratu beharko du kondizio horrek.

Bilbo, 2024ko urriaren 10a

Kontratuaren kudeatzailea
David Alonso Villafáfila

Informatikako zuzendariordea
Jose Luis Unzueta